



**Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputación Foral de Gipuzkoa**

**Bakea bultzatzeko eta terrorismoaren biktimen oroipena
indartzeko plana**

Gipuzkoako Foru Aldundia

2009ko abenduaren 9a



**Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputación Foral de Gipuzkoa**

AURKIBIDEA

I. Sarrera

II. Planaren planteamendu orokorrak

III. Planaren oinarri etikoak

IV. Planaren edukiak

- a) Helburuak
- b) Lan ildoak
- c) Ekintzak



Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputación Foral de Gipuzkoa

I. SARRERA

1. Plan honen xedea da erantzun bat ematea foru gobernua, 2009ko irailaren 17ko politika orokorreko eztabaidan, Gipuzkoako Batzar Nagusien aurrean hartutako konpromisoari.
2. Gipuzkoako Foru Aldundiak terrorismoaren biktimen errealitateaz duen konpromisoa zehaztu eta antolatu nahi du, jarduera esparru finko, egonkor eta koordinatu baten barruan.
3. Gipuzkoako Foru Aldundiak aurreko agintaldietatik datorren jarrera garbi bat azaldu izan du terrorismoaren aurka eta giza eskubide guztien alde. Jarrera hori jarduera askotan gauzatu izan da, eta partaidetza soziala eta politikoa norabide horretan bultzatzera bideratu da.
4. Bakea eta bizikidetzaren giro bat lortzea gure herriaren lehentasunezko helburu bat da. Bakearen eta bizikidetzaren zutarrietako bat da biktimei laguntza eta aitortzea ematea, eta haien oroimena bizirik iraunaraztea. Gainera, jarrera proaktibo bat eduki beharra dago giza eskubide guztiak errespetatuak izan daitezen eskatzeko, eta zuzenbide estatu demokratikoaren bide guztietan saiatu bakea lortzeko.
5. Gipuzkoako Foru Aldundiak bultzada bat eman nahi dio, plan honen bitartez, bakearen alde, bizikidetzaren alde eta terrorismoaren biktimen errekonozimenduaren alde egiten duen jarduera orokorrari, modu egituratu batean beste herri erakundeekin batera, Batzar Nagusietako batzarkide taldeekin eta gipuzkoar gizarte osoarekin lan partekatua bat garatu ahal izateko. Horrela, planaren bitartez eragimen maila handiagoa lortuko dugu ezarritako helburuak lortzeko.



Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputación Foral de Gipuzkoa

6. Plana egiteko erreferentzia nagusitzat hartu dugu 2008ko ekainaren 19ko 4/2008 Legea, Terrorismoaren Biktimei Aitorpena eta Erreparazioa egitekoa.



Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputación Foral de Gipuzkoa

2. PLANTEAMENDU OROKORRAK

1. ETA talde terroristak berrogeita hamar urte bete ditu. Joan den bost hamarkada honetan, ekintza kriminal zabal bat eraman du aurrera, zortzi ehun biktima baino gehiago sortu dituena. Talde horrekin batera —agian, egokiago da esatea haren aurrez aurre— beste talde terrorista batzuk ere izan dira, aurkako ikuspegiaz eta orientazioaz sortuak (Guerrilleros de Cristo Rey, BVA, Triple A, GAE, GAL eta abar). Guztien artean, mila bat biktima eragin dituzte, albo batera utzirik kaltetuak izan diren pertsona ugariak (zauritutako milaka batzuk, familia eta hurbileko hamarnaka mila gehiago, eta bahitu, estortsionatu eta mehatxatu mordo bat). ETA da terrorismoaren adierazpen gorena gure herrian, urte luzez iraun duen talde terrorista delako, gizarte oinarri batek laguntzen duelako, gaur egun oraindik jardunean dagoelako, eta sortu duen biktima kopurua itzela delako; eta talde terrorista horrek kaltetutakoak dira, berriz, biktimaren prototipoa, nahiz horrek ez digun ahaztarazi behar gure herrian badirela terrorismoaren beste biktimak ere.

2. Gatazkak bereizi egin behar dira: gatazka politikoa eta motibazio politikoa duen indarkeriazko gatazka (terrorismoa) ez dira gauza bera; desberdinak dira ezaugarritze teorikoaren aldetik, eta desberdinak dira errealitate praktikoan: gatazka politikoak ez du, nahitaez, indarkeria sortzen, indarkeria gatazka politikoaren agerkari soil bat ez den bezalaxe, nahiz populazioaren zati esanguratsu batek elkarri gogorki loturik bizitzen eta sentitzen dituen.

3. Gipuzkoako Foru Aldundi plan hau zedarritu nahi du (kontzeptuen, jarduera esparruen eta garapenaren aldetik) 4/2008 Legearen mugakizunetara. Alabaina, argitu beharra dago erakunde honek garatzen dituen beste jardueren bitartez beste errealitate batzuetan ere sakontzeko asmoa duela, esate baterako, frankismoaren biktimen oroimena babesten, edo giza eskubideen urraketa larri eta ageriko bat (tortura den bezalakoa) pairatu izan duten pertsonak babesten.



**Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputación Foral de Gipuzkoa**

4. Badugu zailtasunik ere argi eta garbi identifikatzeko nor ari garen aipatzen «terrorismoaren biktima» esamoldea erabiltzen dugunean, esamoldea osatzen duten bi izenak berez zalantzarriak diren heinean. Puntu horretan, aipatutako 4/2008 Legearen ikusmoldea berariaz aintzat hartzen dugu, definizio zehatz bat egiten saiatu ordez, ezaugarritze praktiko bat ematen baitu —«lege honetan ezarritakoa aplikatu behar zaien pertsonak»—, legearen eremuan ahal den ekintza terroristen biktima gehien hartzen saiatu, albo batera utzita ekintza horiek terroristatzat jotzen diren taldeko kideek edo beste batzuek egin dituzten.

5. Ikuspegi horren arabera, terrorismoaren biktima dira, inolako zalantzarik gabe, ETaren (bertsio guztietan: ETAm, ETApM, Komando Autonomoak...) jarduerak kaltetuak (hildakoak, zaurituak, bahituak, mehatxatuak, estortsioa jasandakoak, eta haien familiartekoak eta hurbilekoak), baita ETaren aurkako terrorismoaren (BVE, Triple A, GAE, GAL...) jarduerak kaltetuak ere.

6. Terrorismoa goratzen duten jarduera eta agerpen jendaurreko guztiak saihestu behar dira.

7. Planaren ekintzak norabide hauetara bideratu behar dira:

- Bakearen eta giza eskubide guztien errespetuaren aldeko kultura babestea.
- Biktimekiko elkartasuna eta aitortzea, eta haien oroimena berreskuratzea.



Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputación Foral de Gipuzkoa

III. PLANAREN OINARRI ETIKOAK

Biktimganako jokabidea oinarri etiko hauek gidatuko dute:

1. *Bizitzarekiko eta giza eskubide guztiekiko errespetua* da plan honen funtsezko oinarri etikoa.

2. *Aitorpena, elkartasuna, kalteen erreparazioa*. Egitateen bidegabekeria aitortu eta biktimen duintasuna errekonozitu behar da. Saihestu behar da arrazoi legalak edo politikoak nagusiago izatea biktimekiko aitorpenaren etika (egia, justizia eta oroimena) eta ekitatezko tratua baino.

2. *Deslegitimatzea*. Jarrera positiboa eduki behar da (legitimazio falta ez baita nahikoa), terrorismoaren eraginkortasuna, zentzua, funtsa eta justifikazioa ukatzeko eta hari argi eta garbi aurre egiteko.

3. *Inoren probetxutan ez baliatzea*. Biktimen aldeko jardun instituzionalak eta sozialak saihestu eta gaitzetsi egin behar du terrorismoaren biktima direnen errealitatea era partzial eta interesatuan manipulatzeko eta patrimonializatzea. Adostasuna eta blindaje etikoa landu behar dira terrorismoari aurre egiteko. Terrorismoak eraso egiten dio gizakiaren duintasunari, bai eta herri baten borondate demokratikoarekiko errespetuari ere.

Azpimarratu beharra dago biktimak direla gehiena sufritu dutenak: biktimak berak, biktimen senitartekoak eta biktimen ingurukoak. Beharrezkoa da bidegabekeria halakotzat aitortzea eta sortu den min atzeraezin hori leuntzeko gure laguntza osoa ematea. Biktimek jakin behar dute berekin gaudela. Biktimei (biktima guztiei) laguntzea gizarte osoarekiko erantzukizun zibikoa edukitzea da; gizarteak erreferente etiko garbiak errekonozitu behar ditu, gure kultura demokratikoa sendotu dezagun.

4. *Koherentzia*. Oso garrantzitsua da gero jarraipena izango duten ekintzak planteatzea, beste esparru batzuetako esku-hartzeekin ondo



**Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputación Foral de Gipuzkoa**

egokitzen direnak, haiekin bateragarriak izango direnak eta kontraesanean egongo ez direnak, beste erakunde eta eragile politiko eta sozialekin koordinatuta.

5. *Elkarbizitzarako pedagogia zibikoa.* Erakundeek, biktimen aldeko aitortpena bultzatuz ez ezik, biztanleria guztia sensibilizatzeko eta hezteko konpromisoa eta erantzukizuna beren gain hartuz eta aditzera emanaz jokatu behar dute.

6. *Ekarpen positiboa* Terrorismoaren biktimen aldeko aitortpena ez dugu ikusi behar soil-soilik haiekiko dugun zor bat bezala; haien ekarpen bat ere bai baita, oroipen kolektiboaren eta elkarbizitzaren aldeko ekarpen bat, alegia.

7. *Partaidetza.* Biktimekiko jarduketa plan orok haien ordezkarien partaidetza eduki beharko luke prozesu osoan zehar (plana egiterakoan, aurrera eramaterakoan, jarraipenean, ebaluazioan...)

8. *Adostasuna.* Neurri eta ekimen zehatzak ahalik eta adostasun sozial eta politikorik handienaz erabaki behar dira, onartuak eta eraginkorrak izatea bermatzearen.

IV. PLANAREN EDUKIAK

a) Helburua

- Biktimei erakustea foru erakundeak irmo konprometiturik daudela, haien eskubideen alde eta terrorismoa deslegitimatzearen alde.

-Gizarteratze lan bat egitea, bakearen, elkarbizitzaren eta giza eskubide guztiekiko errespetuaren aldeko kulturaren hedatzeko.

- Gipuzkoako Foru Aldundiaren elkarlana eskaintzea erakunde guztiei, Eusko Legebiltzarrak onartutako Terrorismoaren Biktimei



**Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputación Foral de Gipuzkoa**

Aitorpena eta Erreparazioa egiteko Legea betez erabakitzen diren jardueretan.

- Gipuzkoako gizartea oro har sentsibilizatzea, terrorismoaren biktima direnen egoeraz.

b) Lan ildoak

Hauek dira Planaren hiru lan ildo nagusiak:

- Alde batetik, eta lehenbizi, biktimenganako atentzio instituzional zuzena, haien aldeko aitorpena eta erreparazioa eginez eta duten egiarako, justiziarako, duintasunerako eta oroipenerako eskubidetik abiatuta.

- Bestalde, eta bigarrenik, terrorismoaren biktimen aldeko sentiberatasun soziala eragitea foru erakundeek dituzten eskumenen bitartez.

- Hirugarrenik, gizarteratze lan bat burutzea, bakearen, elkarbizitzaren eta giza eskubide guztiekiko errespetuaren aldeko kultura hedatzeko.

c) Ekintzak

Terrorismoaren biktimenganako atentzio instituzionalaren ildo estrategikoa:



**Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputación Foral de Gipuzkoa**

1. Jokaera instituzionalarentzako protokolo bat ezartzea, ekintza terrorista bat gertatu eta biktimak sortuko liratekeen egoeretarako.

2. Diputatu nagusiaren ardura izango da:

- Biktimei gertutasuna eraklusea eta laguntzea, eta ordezkari-tza instituzionala eramatea.

- Eusko Jaurlaritzako Terrorismoaren Biktimak Laguntzeko Zuzendaritzarekin batera lan egitea eta planaren testuinguruan elkarrekiko ekintzak adostea.

- Plana aurrera eramaterakoan biktimen kolektiboek parte har dezaten sustatzea.

- Terrorismoaren Biktimei Aitorpena eta Erreparazioa egiteko Legea betetzen laguntzea, foru eskumenen esparruan.

3. Lurraldeko erakunde publiko guztiekin batera, urtero ekitaldi instituzional bat egitea terrorismoaren biktimen aldeko aitorpena egiteko.

Bakearen eta giza eskubide guztiekiko errespetuaren aldeko kulturaz gizartea sentiberatzeko ildo estrategikoa:

4. Bakeari, giza eskubideei eta terrorismoaren biktimei buruz norbanakoek nahiz erakundeek eginiko ikerketak edo lanak finantzatzea eta argitaratzen laguntzea.

5. Gizarte sentiberatzeko proiektuak gauzatzea: Bakeari, giza eskubideei eta terrorismoaren biktimei buruzko erakusketa ibiltariak, antzezlanak eta zine-forumak.

6. Foru langileak, bereziki Gizarte Zerbitzuetakoak, biktimekiko aitorpenerako eta traturako trebatzeko programa egitea.